

# Zer eskatzen du herriak?

Herritarrek eta elkarteek 2004ko aurrekonturako egindako proposamenak aukeratzeko prozesua amaitu egin da. Jasotako 200 proposamenetatik, 40 aukeratu zituen Udal Gobernuak joan den ostegunean, hilak 3. Proposamen horiek gauzatzeko, dirua eskatuko du 2004ko aurrekontuen zirriborroak.

## Kale kantoitik

### Baztertutako eskaerak

Hona hemen Udal Gobernuak baztertutako proposamenetako zenbait. Ez onartu izanak, hala ere, ez du derrigorrez esan nahi etorkizunean egingo ez direnik edota 2004ko aurrekontuetan sartuko ez direnik.

#### Jarduera soziokulturalak

-Bananduek etxebizitza izateko diru laguntzak

-Euskarazko liburuen katalogoa osatzea

#### Mantenua eta errepedeak

-Trafiko hobekuntzak Etxadin

-Lurazpiko zaborrontziak Altzan

-Easo plaza hobetzea

-Kaleko altzariak berritzea Egian eta Amara Berrin

#### Mugikortasuna

-Taxi-bus zerbitzua Ujian

-27. poligonora eta Molinaora joateko autobus zerbitzua

#### Ingurumena

-Udal eraikinetan eguzki energia panelak ezartzea

-Telefonia antenen eragina ikertzea

#### Herritarren parte hartzea

-Irabazirik gabeko elkarten udal bulegoa sortzea

#### Egitasmoak

-Bellas Artes antzokia kultur ekipamenduentzat bideratzea

-Miramonen Etnografia Gunea egitea

-Beste aterpetxe bat eraikitzea

-Saguesen skate parkea egitea.


Ainhoa Irazu

**H**erritarrek eta Donostiako elkarteek aurrekontuetan parte hartzeko prozesua abiatu zuen Udalak duela hiru urte. Udalak dioenez, ekimen honekin, herritarrek eta elkarteek aurrekontuak egiteko prozesuan parte har dezaten nahi du. Parte hartzeko prozedura erraza da. Lehenik, Udalak ekarpenak bidaltzeko deia egiten du. Ondoren, elkarteekin bileak egin ohi ditu, jasotako proposamenez eztabaidatzeko. Azkenik, Udal Gobernu Batzordeak ekarpen nagusiak aukeratu ditu eta egitasmo horiek gauzatzeko dirua sartzen du aurrekontuen zirriborroan. Udalbatzak zirriborroa onartuz gero, proiektu horiek egiteko dirua bideratuko du Udalak aurrekontuetan.


### Aurten, 200 ekarpen

Aurten, Udalak, ekainean deitu zituen herritarrek eta elkarteek proposamenak bidal zitzaten, eta 200 bat proposamen jaso zituen Auzo eta Herritarren Partaidetza Sailean. Sail honek du, hain zuzen,

**Eva Salaberria:**  
**«Prozedura ezin da gehiago luzatu»**



Munto eta Katxola baserrietan kultur azpiegiturak egiteko proposamena onartu du Udal Gobernuak.



Urgullen eta Gipuzkoa Plazan zaindari bana jartzea onartu du Udal Gobernuak.


ekarpenak Gobernu Batzordera helarazteko ardura. Jasotako proposamenetatik asko Donostiako auzo elkarteek igorritakoak dira: Egia Bizirik, Lantxabe (Aiete), Amara-Osinaga Auzo Elkartea, Hondarpe (Gros), Altzako Auzo Elkartea... Dena dela, beste zenbait taldek ere egin dituzte ekarpenak: Gros, Egia, Antigua eta Erdialdeko dendari elkarteek, Atzegi-k, Ixo-k, Kalapie-k, Baikara-k eta Urumea Gureak, besteak beste. Proposamenak sei atletan banatu dituzte Udalean: jarduera soziokulturalak, mantenua eta errepediak, mugikortasuna, hirigintza eta ingurumena, herritarren parte hartzea eta egitasmoak.

### 40 ekarpen aukeratu dituzte

Ekarpenez eztabaidatzeko, Udalak hainbat bilera egin zituen iraila amaieran elkarteekin. Joan den ostegunean, Gobernu Batzordeak 40 egitasmo aukeratu zituen aurrekontuaren zirriborroan sartzeko (ikus ondoko koadroa). "Prozedura ezin da gehiago luzatu, izan ere, zirriborroa azaroan bertan aurkeztu nahi dio oposizioari Udal Gobernu Batzordeak. Behin zirriborroa eginez gero, osoko bilkuran eztabaidatu be-

## Zirriborroa azaroan aurkeztu nahi du Udal Gobernuak

har du Udalbatzak", esan digu Eva Salaberria Auzo eta Herritarren Partaidetza Sailko teknikariak. Esan bezala, ezinbestekoa da Udalbatzak aurrekontuaren zirriborroa onartzea, 40 proiektu horiek gauzatzeko. Beraz, goizegi da oraindik herritarrek eta elkarteek aurkeztutako eta Udal Gobernuak onartutako proposamenak noraino helduko diren esateko.



## Kale kantoitik

### Onartutako ekarpenak

#### Jarduera soziokulturalak

- Gubixtuentzat babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea
- Gor mailako kirolarientzako diru laguntzak handitzea
- Herrieko pilotalekuan eta bolatokian hobekuntzak egitea

#### Mantenua eta errepediak

- Garibar, Penafloida eta San Frantzisko kaleak oinezkoentzat egokitzea
- Amara Berri motorrentzako aparkalekua sortzea

- Molinaoko Artxipi parkea berritzea eta auzuneko sarbideak hobetzea

#### Mugikortasuna

- Espaloien eta errepedien arteko aldea gutxitzea
- Aizkorri kalean idogailua ipintzea
- Bizikleta teknikaria izendatzea eta labe gorrien sarea osatzea

#### Ingurumena

- Zarata neurgailuak jartzea
- Uliak lursailak erostea eta zuhaitzak landatzea
- Luzunaga lantegia lurrera botatzea
- Urumeako ibaiaren pasealekua egitea

#### Herritarren parte hartzea

- Irabazirik gabeko elkarteentzat diru laguntzak handitzea eta elkarteon lokal gehiago ematea

#### Egitasmoak

- Erdialdean aparkaleku gehiago egitea
- Kariosi hiribideko sarrera kentzea
- Muntio eta Katxola baserrietan kultur azpiegiturak egitea
- Intxaurrondoko Garro zubia berritzea
- Urgullen eta Gipuzkoa plazan zaindari bana jartzea